

Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera urte arteko %0,5eko hazkunde-tasara jaitsi da 2006ko apirilean


Urteko lehenengo lauhilekoko hazkundera %5,7koa izan da 2006ko lehenengo lau hilabeteetan

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko apirilaren aldean %0,5 murriztu da 2006ko apirilean. Urteko lehenengo lau hilabeteetako hazkundera %5,7koa izan da, 2005eko aldi beraren aldean.

2006ko apirilean, eta 2006ko martxoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %1,4 murriztu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean. Beraz, martxoko desazelerazioa (%-1,3) apirilean ere eman da (%-1,4).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea

% Hazkundera



(*) 2006ko apirileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko apirileko indizearen bilakaerak (2005eko apirilaren aldean) hazkundeak izan ditu ekipamenduko ondasunetan (%2,1) eta energian (%2,0). Alabaina, indize hori murriztu egin da tarteko ondasunetan (%-0,6) eta, batez ere, kontsumo-ondasunetan (%-7,2); izan ere, azken hauetan murrizpenak eman dira kontsumo-ondasun

iraunkorrak (%-7,6) eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak (%-6,9) ere murriztu direlako.

2006ko apirileko hil arteko aldaketak, 2006ko martxoaren aldean, negatiboak izan dira industriako sektore guztietan. Energia %8,9 murriztu da hil artean, ekipamenduko ondasunak %2,2 aurreko hilabetearen aldean, tarteko ondasunak %0,2 eta kontsumo-ondasunak %2,6 martxoaren aldean. Azken honen murrizpena kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (%-3,1) eta kontsumo-ondasun iraunkorrek eragin dute (%-1,4).

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira Bizkaian (%0,6) eta Gipuzkoan (%0,3), baina Araban %3,8 murriztu dira.

2006ko martxotik apirilera bitarteko tasak murriztu egin dira hiru lurraldeetan: Bizkaian %1,8 murriztu dira hil artean, Gipuzkoan %1,2 eta Araban %0,9.

Taula: 2006ko Apirila. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Api06/Api05	At/At-1 (1)	Api06/Mar06	Mar06/Ots06
Indize orokorra: Euskal AE	-0,5	5,7	-1,4	-1,3
Araba	-3,8	5,6	-0,9	-4,4
Bizkaia	0,6	6,7	-1,8	-1,0
Gipuzkoa	0,3	4,6	-1,2	0,1
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-7,2	0,5	-2,6	0,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-7,6	1,6	-1,4	-1,7
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-6,9	-0,1	-3,1	0,9
Ekipo-ondasunak	2,1	9,3	-2,2	-0,9
Bitarteko ondasunak	-0,6	1,9	-0,2	-0,5
Energia	2,0	19,9	-8,9	-7,8

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp